

2021EKO EKINTZEN MEMORIA

URTARRILA

- 5ean Basquetour-eko arlo desberdinetako arduradun teknikoekin bildu gara berehala martxan jarriko dituzten hainbat ekintzei buruz jardun eta Ministeritzatik iritsiko diren dirulaguntzei buruzko informazioa jasotzeko helburuarekin.
- 11an Basquetour-ekin bildu gara, Basquetour eta Goitur-en arteko aurtengo hitzarmenaren nondik norakoak zehaztu ditugarik.
- 18an Foru Aldundiko Turismo Sailarekin bildu gara, Foru Aldundia eta Goitur-en arteko aurtengo hitzarmena adostu dugularik, Kataluniako azoka turistikoei dagokion hitzarmena.
- 19an GOT orientazio taldearekin bildu gara iaz lantzen hasi ginen Segurako orientazio zirkuitoei azken ikutuak eman dizkiegularik; era berean eta proiektu honen inguruan, zirkuito hauek aurkezteko prentsaurrekoa eta orientazio lasterketak ere prestatu ditugu.
- 23an Basque Luxury aurtengo aldizkariaren aurkezpenean izan gara: Goierriko erreportai bat argitaratu da bertan; online formatoan ere badagoen aldizkari hau Euskal Herria, Kantabria, Errioxa eta Frantziako hotel eta zerbitzu turistikorik garrantzitsuenetan egongo da eskuragai eta 836.000 irakurle ditu denera. Aldizkaria munduko 5700 hotel garrantzitsu baino gehiagotan dago kontsultarako (The Ritz, Carlton, Park Hyatt, Marriott, Four Seasons, Mandarin, Intercontinental, Relais&Chateaux eta Le Meridien), Europako hainbat aireportuetan eta hegazkin konpainietan (Iberia, British Airways, Air Canada, Jet Blue, Austrian Airlines, Eurowings, Israel Airlines, Qantas, Lufthansa, Swiss, Alitalia,...), Eurostar trena eta kruzeroetan ere (Silverseas, MSC Cruises, Carnival, Viking,...)
- 26an Basque Destination errezeptiboarekin bildu gara Logitravel, Smy Travel, Your TTOO eta Traveltool agentzia eta komertzializatorako plataformen bidez Goierriko pakete turistikoei sal ditzaten: eskualdeko produktu turistikoei batu eta pakete turistikoei berriak diseinatuko dituzte.

- 29an, aurten ospatuko den COETUR, Europako Landa Turismoko Kongresuaren antolakuntzan parte hartu dugu: ekainean Arantzazun ospatuko da Kongresu hau, eta Debagoiena eskualdea eta Eusko Jaurlaritzarekin batera antolatzaile garen neurrian, Kongresu honen prestaketa lanetan hasi gara.
- Hilabete honetan zehar komunikabide desberdinekin harremanetan jarri gara eta Goitur-eko aurtengo egitasmoaren berri eman diegu, Eusko Jaurlaritzaren subentzioen berri emateaz gain.
- Urtarrilean ere Eusko Jaurlaritzak argitaraturiko turismorako laguntzen berri eman diegu onuradunak diren bazkideei.

OTSAILA

- 4ean Gipuzkoako Turismo Mahaia bildu da eta honako gai hauek landu ditu: egitasmo estrategiko berriaren ekintzak eta promozioak, aurtengo dirulaguntzak, turismoko hub berriaren egoera eta Gipuzkoako webgune berriaren diseinua.
- 5ean Euskadiko Ekoturismoko Mahaia bildu da; bertan parte hartu dugu Gipuzkoako eskualde guztien izenean, eta beste hainbat gaien artean honako hauek ere landu ditugu: Euskadiko Ekoturismoko IV Foroa, Espainiako Ekoturismoko Klubarekin lankidetzarako hitzarmena eta Euskadiko ekoturismoaren promozioa (landing page berria, Parke Natural guztien mapak eta sare sozialen inguruko lanketa).
- 9an Basquetour-eko Zuzendaria eta arlo guztietako arduradunekin bildu gara Euskadiko erakunde publiko-pribatu garen Euskadiko hiru elkarteok: Jaurlaritzaren ekintza plana aurkeztu ondoren, gure aportazioak txertatuko dituztela esan digute. Hori dela eta, Goitur-ek ondorengo ekimen eta ekintza promozional hauetan parte hartuko du: Europatik etorriko diren turismorako laguntza proposamenetan gure proiektuak txertatuko dituzte (jasangarritasun turistikoa eta produktu turistikoen arloak), turismorako kode etikoaren programan enpresa berriak sartuko ditugu, helmuga turistikoa adimenduna izateko egitasmoa abiatuko dugu, turismo jasangarriaren programa berabiaratuko da, UNESCO lekuen promozio berezi bat egingo da, Hirukide eta Estatuko turismo familiarren klubarekin hitzarmenak sinatuko dira, Goierriko zikloturismoko egitasmo berriari buruzko hausnarketa egingo da, produktu eta errekurtsu gastronomikoen promozioa Estatuan eta European

Sagardi taldearen eskutik, Touring egitasmoaren barruan Nafarroarekin ibilbide berriak eta ibilgailu elektrikoekin egin ahal izateko ibilbideak, Euskadi Premium ekimenaren hasiera, Senior turismoaren egitasmoaren hasiera Adinberriekin elkarlanean, Estatuko bidai agentzien elkartearen bidez komertzializazioa, Renferekin kanpaina promozionalak eta nazioarteko kanpainak Portugal, Ingalaterrako hegoaldea, Alemaniako hegoaldea eta Frantzia hegoaldean.

- 10ean eta 25ean, Goierriko turismoaren hausnarketa estrategikoa egiten lagunduko digun Gura Marketing enpresarekin bildu gara, eskualdeko Turismo Mahaiaren bilera prestatzeko helburuarekin.
- 10ean baita ere, Goierri Telebistarekin elkartu gara udaberrin garatuko ditugun kanpaina promozionaletarako bi spot desberdin grabatzeko helburuarekin.
- 11an, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko errezeptiboen eskutik komertzializatuko dituen Goierriko zazpi proposamenak landu ditugu (egunekoak eta aste bukaerakoak); Aste Santutik aurrera martxan jarriko dira eta Goierri turistak eta bisitariak erakartzeko beste modu bat izango da honako hau.
- 17an Basquetour-eko natura arloko produktuen bulego teknikoarekin bildu gara, Goierri zikloturismoko ibilbide luzeak garatzeko proiektuaren bideragarritasuna aztertu asmoz.
- 18an eta 25ean, ETB, Tevisión Española eta Amazon Prime-ntzat Elkano eta Magallanesi buruzko pelikula-dokumental bat grabatuko duen ekoizpen etxea etorri da Goierri: atal batzuk hemen grabatzeko erabakia hartuta dute jada eta lokalizazio berriak aurkitu nahian etorri dira informazio eske; herri desberdinetan dauden eta beraien beharren arabera errekurtsio desberdinak erakutsi dizkiegu.
- 22an Basquefest azokari buruzko bilera batean parte hartu dugu: Bilbon Aste Santuan ospatzekoa zen azoka hau ere bertan behera geratu da.
- 25ean Ordiziako turismoko komisiok parte hartu dugu: bertan, foileto berria ontzat emateaz gain, promoziorako urrats berriak adostu ditugu baita ere.

MARTXOA

- 2an Zeraingo Udalarekin bildu gara, Goierri zikloturismoko ibilbide luzeak garatzeko proiektuaren azterketa egiteko asmoz: Aizpitta eta Barnaola arteko bidearen egoera eta irtenbidea aztertu dugu.
- 5ean Basquetour-eko produktu turistikoaren arduradunarekin elkartu gara Mutiloa-Ormaiztegi Bide Berdearen zabalkuntza aztertzeko helburuarekin Barnaola-Aizpitta bide berriaren bitartez.
- 8an Basquetour-eko Familia Turismoa egitasmoa garatzen duen enpresarekin bildu gara proiektuaren egoera aztertu eta berriz ere martxan jarri asmoz.
- 9an Olaberriako Etxezuri sagardotegian izan gara Goierriko sagardotegien denboraldiaren irekiera prestatzeko.
- 10ean, Goierriko errekurtsu turistiko industrialak Estatu turismo industrialeko gida digitalean sartu ditugu; gida horretan oinarrituko dira Estatu mailan lanean diharduten turismo industrialeko agentzia eta errezeptibo nagusienak bidaiak antolatzeko garaian.
- 11an Goierriko Turismo Mahaia bildu da eskualdeko produktu turistikoaren inguruan gogoeta egiteko helburuarekin adituen eskutik: produktu turistikoaren etorkizuna, publiko desberdinak eta promozio turistikorako bide berriak aztertu ditugu.
- 11an baita ere, eskualdeko Turismo Bulegoen Mahaia elkartu da, Aste Santua baino lehen izango ditugun promozio ekintzak partekatze asmoz eta Aste Santua eta udarari begira landuko ditugun estrategiak zehaztearren.
- 9tik 12ra Berlin-go ITB azoka birtualean parte hartu dugu gure errezeptiboaren bitartez, eta hauen bidez aurkeztu ditugu eskualdeko pakete turistiko desberdinak.
- 16an Goierriko sagardotegien denboraldi berria aurkezteko prentsaurrekoa ospatu da Olaberri: ekitaldiaren buru eta gonbidatu gisa, Aitziber Garmendia aktorea izan da gure artean.
- 17an Basque Culinary Center-ek aurrera daraman turismo gastronomikoko masterrean ikastaro bat eman dugu Goierriko produktu gastronomikoak aurkeztuz eta hauen kudeaketa turistikoa azalduz; bide batez, eskualdeko hainbat errekurtsu gastronomiko ere bisitatu ditugu.

- 18an Gipuzkoako Turismo Mahaia bildu da eta honako gai hauek landu ditu: Aste Santurako ekintzak eta promozioak, Donostia Turismo eta Basquetour-ekin elkarlana eta BEGIKA egitasmoaren jarraipena.
- 18an baita ere, Donostiako turismo bulegoetan dauden informatzaile guztiak bilera bat antolatu dugu: bertan, Goierriko produktu turistiko guztiak aurkeztu dizkiegu gure eskualdeko informazio hobea eskaini dezaten. Bide batez, Donostia Turismoa elkarteko Zuzendari eta Zuzendariordearekin bildu gara bi elkarten arteko lankidetzara sendotzeko helburuarekin.
- 23an Segurako orientazioko joku berriak aurkeztu ditugu prentsaurreko baten bidez: zailtasun desberdineko 3 zirkuito diseinatu eta prestatu dira familian eta lagunartean egiteko helburuarekin.
- 25ean Ordizia hotelaren inaugurazio ekitaldia prestatu dugu; inauguraziora etorritakoen artean, Ordizia eta eskualdeko agintariekin batera, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Turismo Zuzendariak izan dira.
- 26ko LABIaren ondoren sortutako nahasmena argitzen saiatu gara Erakunde eta Eusko Jaurlaritzako Sail desberdinekin harremanetan jarritz: eremu gorriko alojamentuetara datozen turistek egin dezaketena argitzeaz gain, eskualdeko egoera ere azaldu behar izan dugu argitaratutako informazio okerren aurrean, Goierri osoa ez delako konfinatu; prentsa ohar bat atera behar izan dugu hau dena garbi jartzeko eta gure bazkideekin etengabeko harremanetan egon gara zalantza guztiak argitzeko helburuarekin.
- 28an Seguran ospatu den orientazioko proba babestu dugu; bertara 115 partaide gerturatu dira.
- Hilabete honetan zehar Udaletxe desberdinekin elkartu gara, abian dauden edo egitasmo diren hainbat proiektu turistiko aztertzeke asmoz.
- Hilabete honetan ere, behin mugikortasuna zabaldu ondoren, landuta genituen lehen ekintza promozional apurrak garatzen hasi gara.
- Aste Santu atarian, hainbat komunikabideekin elkarrizketak egin ditugu Aste Santu aurreko balorazioa eginez eta Goierri antolatu diren ekintza berezien berri emanez.

APIRILA

- Webgunearen etengabeko mantenuan jarraitu dugu Aste Santu inguruan eta erabiltzaileari begira, edukiak sortzen jarraitu dugu, on line gida tematikoak batez ere.
- Aste Santuko egunetan ere, LABIAK ezarritako murrizketen aurrean gure bazkideek izan dituzten zalantzak eta oztopoak argitzen eta konpontzen ibili gara; ahalegin bereziak egin behar izan ditugu gorriz zeuden herrietako alojamenduetara etorritako turistaren mugikortasunari buruzko argibideak jasotzeko garaian.
- 9an, turismo familiarra deituriko target turistikoarentzat, gai honen inguruko spot berri bat grabatu dugu sektore honi zuzendutako promozioak egin behar ditugulako.
- 15ean, Goierriko turismoaren hausnarketa estrategikoa egin ondoren, Gura Marketing enpresarekin bildu gara, hausnarketaren ondorioak aztertu eta jarraitu beharreko ildoak markatzeko asmoarekin: ondorioztatutako ideia guztiak txertatuko ditugu promoziorako ekimen guztietan, webgunean dugun informazioa aldatuz batez ere.
- 19an Zegama-Aizkorri maratoiko arduradunekin bildu gara aurten, maratoiaren ordeztatu nahi duten ekimenaren berri izateko eta gure aholkuak jasotzeko.
- 22an Basquetour-eko Zuzendari Orokorra eta arlo guztietako arduradunekin bildu gara Euskadiko erakunde publiko-privatu garen Euskadiko hiru elkarteok: urteko lehen hiru hilabeteko egoeraren argazkia azaltzeaz gain, produktu turistiko desberdinen bilakaera aztertu dugu, Next laguntzen egoeraz informatu gaituzte eta hiru eskualdeon artean garatuko ditugun promozio ekintzak aurkeztu dizkiegu.
- 22an baita ere Eusko Jaurlaritzak antolaturiko bilera batean parte hartu dugu: bertan, berehala aterako diren jasangarritasun turistikorako egitasmoen programak aurkeztu dizkigute.
- 23an Basquetour-eko Lehiakortasun Sailarekin bildu gara Sail horretako aurtengo programen berri izateko, segurtasuna eta Euskadiko Kode Etiko programari buruzko ildoak bereziki.

- Hilabete honetan zehar ere, Eusko Jaurlaritzako arduradunekin harremanetan egon gara etengabe, berehala aterako diren subentzioen lerroak pribatuen beharretara zuzendu daitezzen; horrela gertatuko da beraientzako diren CTP eta EMET subentzioekin. Gauza bera egin dugu Foru Aldundiak ostalaritza eta sektore turistikoarentzat aterako dituen laguntza berriekin ere.
- Apirila bukaeratik azarora arte, Nekatur, Euskadiko nekazalturismo eta landetxeen webgunean, promoziorako Goierriko banner bat txertatu dugu.

MAIATZA

- 4ean Foru Aldundiko Turismo Zuzendariarekin bildu gara, aurrera daramaten egitasmo estrategikoaren momentuko egoera zein den eta pribatuentzako subentzio berria nola dagoen jakiteko helburuarekin.
- 4ean natur turismoaren inguruko Aktibatu jardunaldietan izan gara.
- 5ean baita ere Daniel Solana, Basquetour-eko Zuzendari Orokorrearekin elkartu gara: gure hitzarmenaren inguruan jarduteaz gain, Europako dirulaguntzen berri ere jakin dugu.
- 5ean "Ticket bai" programari buruzko formakuntza batean parte hartu dugu, establezimenduetan nola kobratu behar den eta ezarriko den legeari eta prozedurari buruzko informazioa jaso dugularik.
- 7an, Basquetour-ek antolatutako bilera baten bidez, lehendik egina zegoen Euskadiko barnekaldeko turismoa lantzen duen egitasmo estrategikoa berreskuratu dugu, eta bertan zehazten diren ekintzak aztertuko dira hemendik aurrera; urrats garrantzitsua izango da Goierrirentzat egitasmo honetako hainbat lerro kontutan hartzea.
- 12tik 14ra Gasteizen ospatu den I. Zikloturismo Foroan izan gara.
- 13an, COETUR, Europako Landa Turismoko Kongresurako elkarrizketa bat grabatu dugu Goierriko turismoa aurkeztuz eta aztertuz.
- 13an baita ere, Foru Aldundiko Hub turistikoari buruzko bilera batean parte hartu dugu, eta bertan, Jabier Larrañaga Turismo Diputatuarekin egoteko aukera izan dugu.

- 14ean, Euskadiko zikloturismoko astea dela eta, Javier Hurtado, Turismo Sailburuarekin biltzeko aukera izan dugu.
- 17tik 30era Euskal Herriko tokiko telebistetan emititu dugu Goierriko spot turistiko familiarra, baita iaz grabaturiko eskualdeari buruzko erreportai zabala ere.
- 25. urtez, Eusko Jaurlaritzako standaren barruan joan gara Madrilgo FITUR azokara 19tik 23ra. Azokak iraun duen bost egun hauetan guregana heldu direnak Goierri-Tolosaldea gida orokorrarekin topatu dira, bertan, eskualdeko produktu turistikoak aurkeztu direlarik.
- 27an Erronka Kirol Klubarekin elkartu gara beraiek aurrera daramatzaten ekintza eta egitasmoei buruzko informazioa jasotzeko; BTT-ko ibilbide iraunkorrak garatzeko erabakia hartu dugu eta elkarlanean jarraituko dugu produktu turistiko hau lantzen.
- Hilabete honetan zehar Udaletxe desberdinekin elkartu gara, abian dauden edo egitasmoei diren hainbat proiektu turistiko aztertzeko asmoz, herri bakoitzeko komisiotan parte hartzeaz gain.
- European Best Destinations Erakundeak, Europear Komisioko Turismoko webgune ofizialean, Goierri promozionatzen du aurten ere Europako lehen 20 destino turistiko lasaienen artean. Goierriekin batera Letonia, Finlandia, Estonia, Errumania, Frantzia, Belgika, Irlanda, Eslovenia, Islandia, Kroazia, Austria, Portugal eta Italiako beste destino batzuk daude; Estatuan, Goierri eta Delta del Ebro daude bakarrik. Webgune bereko turismo jasangarriaren atalean ere 2016. urtetik aurrera azaltzen gara 2015. urtean lortutako EDEN sariari esker; sekulako promozioa da honako hau, batez ere Europako bidai agentzia eta errezeptiboen aurrean.
- Hilabete guztian zehar Goierriko enpresekin jardun gara lanean Familia turismoa, Euskadi Gastronomika eta Kode Etikoaren inguruan, Basquetour-ek bultzatzen dituen proiektuak hain zuzen ere.
- Maiatza bukaeratik urte amaiera arte Goierriko bi banner jarri ditugu Donostiako webgunean Goierri promozionatzeko helburuarekin.

EKAINA

- 2tik 3ra COETUR Kongresuan parte hartu dugu hizlari bezala, bi hitzaldi eskaini ditugularik izenburu hauekin: “Goierrri, destino pionero ante retos del futuro” eta “Tendencias al alza ante el nuevo consumidor: proyectos deportivos con gancho turístico”.
- 2an, arratsaldean, COETUR, Europako Landa Turismoko Kongresuan parte hartzen ari diren 20 hizlari gerturatu dira Goierriera bertako produktu turistikoak ezagutzera; azpisektore guztietako ordezkari tekniko eta politikoak izan ditugu.
- COETUR Kongresuaren inguruan hainbat elkarrizketa egin ditugu irrati, telebista eta egunkari desberdinetan, eta beraz, Goierri promozionatzeko aukera bikaina suposatu du Kongresuak.
- 9an, Euskadi Irratiko Faktoria saioan Goierriko turismoari buruzko elkarrizketa bat egin digute.
- 10ean, Goierriko turismo bulegoen mahaia bildu da lehiakortasunerako programak aurkeztu eta uda garaiko prestaketaz jarduteko asmoz.
- 14tik 18ra Euskadiko Turismorako Kode Etikoa programan parte hartzen duten enpresa guztiek auditoritza pasa dute “Helmuga Segurua” zigilua lortzeko prozesuaren barruan.
- 18an MICE programari buruzko jardunaldi-formazio batean parte hartu dugu Basquetour-en eskutik.
- 19an Eusko Jaurlaritzako Turismo Zuzendariarekin harremanetan egon gara Xacobeo-aren inguruan Goierriera iritsi diren Next Generation laguntzak direla eta.
- 21ean Goierriko erreportai bat atera dugu “Viajar con hijos” aldizkarian.
- 22an Gipuzkoako Turismo Mahaia bildu da aurrerantzean gauzatuko diren promozio ekintzak finkatu eta gaur egungo egoera aztertzeko helburuarekin.
- 24ean Sevatur, turismo azoka birtualean parte hartu dugu: bertan, Goierriko turismoaren aurkezpena egiteko gonbidatu gaituzte, eta aurkezpena egiteaz gain, Goierriko bideo turistikoak emititu dituzte Estatu guztian ikusgai egon den azoka honetan.

- 25ean Goierriko erreportai bat kaleratu dugu Berria egunkariak argitaratu duen oporretarako aldizkarian; ekaina guztian zehar ere, online formatoan egon da ikusgai erreportaia.
- 30ean Ordiziako gida turistikoko berriaren aurkezpenean parte hartu dugu.
- Hilabete honetan ere, iaz lehen aldiz argitaraturiko Goierriko derrigorrezko gida argitaratu dugu ingelesa / frantsesa bertsioan.
- Ekainetik irailera Goierri promozionatu dugu online formatoan Expressive enpresa kontratatu ondoren; kanpaina digitala jarri dugu martxan hiru estrategia erabiliz: sare sozialak, Youtube eta Programatika; Madril, Lleida, Girona eta Bartzelona lurraldeetako 25 eta 55 urte arteko pertsonengana heldu da Goierriko informazioa formatu desberdinen bidez.
- Tour Magazine editorialak argitaratzen dituen Tour Magazine Gipuzkoa, Tour Magazine Bizkaia, Tour Magazine Araba, Tour Magazine Navarra eta Tour Magazine Rioja-ko udako aldizkari guztietan Goierriko promozioa egin dugu.

UZTAILA

- 1ean Donostiako turismo bulegoetan, udaran egongo diren informatzaile guztiekin bilera bat antolatu dugu: bertan, Goierriko produktu turistikoko guztiak aurkeztu dizkiegu gure eskualdeko informazio hobea eskaini dezaten.
- 2an Goierriko iragarkia sartu dugu Goiberri aldizkariaren kontrazalean.
- 2an baita ere Idiazabalgo gaztaren museoko arduradun berriekin elkartu gara udako denboraldia aurkezteko helburuarekin.
- 2an ere Sakanako Trail Estazioaren irekieran izan gara, hemendik aurrera Euskal Herriko Trail Estazioaren parte izango dena.
- 4ean Noticias taldeko Deia, Diario de Noticias de Navarra, Diario de Noticias de Gipuzkoa eta Diario de Noticias de Alava egunkarietako oporretarako gehigarrian erreportaiak argitaratu ditugu eta online edizioetan ere erreportai hauek hilabete guztian zehar egon dira ikusgai.
- 7an Gipuzkoako Hub turistikoko berriaren inaugurazioan parte hartu dugu eta bertako arduradunekin bildu gara Goierriko Donostian eduki dezakeen presentzia berria aztertzekeko helburuarekin.

- 9an turismo industrialari buruzko bileran parte hartu dugu Basquetour-en eskutik; bilera horretan, irailean ospatuko den Industrialdia jardunaldiak aurkeztu dizkigute eta turismo industrialaren sarean parte hartzen duten produktu turistikoak promozionatzeko tresnak eta ekintzak aztertu ditugu.
- 15ean Basquetour-eko Zuzendaria etorri da Goierrira Goierriko garapen turistikorako hainbat atal ezagutu asmoz.
- 16an HITZAK argitaraturiko “Goierriko txoko Kuttunak” gidan eskualdeko informazioa eta publizitatea sartu dugu.
- 23an Ordiziako 2030 ekintza plana aurkezteko ekitaldian parte hartu dugu.
- 24ean Diario Vasco-k argitaratu duen “La gran guía Más Gastronomía 21” aldizkarian Goierriko gastronomiari buruzko erreportaia sartu dugu eskualdeko zerbitzu gastronomiko guztien zerrendarekin batera.
- 25ean Noticias de Gipuzkoa egunkarian Goierriko turismoari buruzko erreportai bat kaleratu dute eta Noticias taldeko egunkari guztietan argitaratzen den igandeko gehigarrian eskualdeko publizitatea jarri dugu baita ere.
- 29an Javier Hurtado, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailburua gerturatu da Goierrira, Goyo Zurro, Turismo eta Ostalaritza Zuzendaria eta Daniel Solana, Basquetour-eko Zuzendari Orokorrekin batera; eskualdeko Alkate eta Udal agintari desberdinekin elkartu dira bi gai konkretu aurkezteko: jasangarritasun turistikorako egitasmo autonomikoak (Next Generation) eta Goitur-ek abiatuko duen Estatu mailako plan pilotu berria (Helmuga Turistiko Adimenduna).
- Hilabete zehar Gipuzkoako kostaldeko turismo bulegoetara Goierriko informazio turistikoa eraman da udako kanpaina dela eta; gauza bera egin dugu eskualdeko alojamentuekin.
- Uztailetik irailera bitartean Zegama-Aizkorri mendi maratokia egiteko 50 dortsal egon dira eskuragai egunero maratokia egin nahi zuen ororentzat; maratokia desestazionalizatzeko eta gualdi kopuruak igotzeko balio izan digu arrakastatsua izan den ekimen honek.
- Uztaila guztian eta iraileko lehen hamabostaldian, Diario Vasco-ko webguneko “Contigo en la playa” atalean Goierriko bideoa eta erreportaiak tartekatuko dira 50 egunetan zehar.

ABUZZTUA

- Hilabeteen zehar erakunde desberdinekin elkartu gara udazkeneko eta datorren urteko promozio turistikorako ekintzak adosteko: Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoa Turismoa, Basquetour eta Donostia-San Sebastián Turismo.
- Abuztuan zehar elkarrizketa ugari egin ditugu irrati eta telebista desberdinekin Goierri eskualdea aurkeztuz eta egunkari askotan atera da Goierriko informazioa.
- Era berean, abuztuan ere, bazkideen kezak eta arazoak konpondu ditugu, material turistikoa eskatutako leku guztietara bidali dugu eta egunero egunero informazio turistikoa eskaini dugu telefonoaren bidez.

GOIERRIKO INDUSTRIA TURISTIKOAREN GORAKADA

BALANTZEA: 2021eko udan iaz baino turista eta bisitari gehiago pasa dira Goierriko turismo bulegoetatik. Goierriko turismo bulegoetatik, hau da, Ataun, Beasain, Idiazabal, Lizarrusti, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zegama eta Zeraindik **12.006 pertsona** pasa dira uztailean eta abuztuan: 5.315 pertsona uztailean eta 6.691 pertsona abuztuan, **iaz baino %9 gehiago**. Beti esaten dugun bezala, turismo bulegoetan jasotako datuak dira: turistak, alojamenduetan eta gure webgunearen bidez aurkitu ahal izan du Goierriko informazioa, turismo bulegoetara joateko beharrik izan gabe. Era berean, Euskal Herrian eta inguruko Erkidegoetan egin dugun promozio erraldoia baliagarria izan delakoan gaude datuen emaitzak ikusi ondoren.

Udan kontutan hartzen ditugun adierazle edo neurgailu guztietan gorakadak egon dira: uztailean eta abuztuan bisitari gehiago, logelen okupazio altuagoa, nazio edo lurralde gehiagotatik etorritako turistak,... Aurten ere, **“call center” ean jasotako dei gehiago** egon dira eta antolaturiko bisita bereziek ere harrera bikaina izan dute.

TURISTEN JATORRIA ETA BISITAREN ARRAZOIAK: aurtengo udan, lehen postua euskaldunek bete dute uztailean turismo bulegoetan, eta abuztuan aldiz, **Katalunia, Madrileko Erkidegoa eta Valentziako Erkidegokoek** hartu dituzte lehen postuak (uztailean ere hiru leku hauetatik etorri zaizkigu batez ere, andaluziar eta irla desberdinetako turistekin batera); uda honetan pixkat **igo egin da turista atzerritarren** kopurua: Frantzia, Portugal, Belgika, Alemania eta Herbeheretako turistak etorri zaizkigu batez ere, baino nabarmena izan da frantsesen igoera. Igarotako gau kopuruari dagokionez, 3-4 egun igaro dituzte Goierriin; dena den, 7-8 egun bitarteko egonaldiak ere izan ditugu.

Bestalde, komertzializazioak duen garrantzia aipatu beharrean gaude: azken urte hauetan izugarritzko lana egin dugu Goierri “saltzen” bidai agentzia, touroperatzaile eta errezeptiboen aurrean; uda honetan ere jaso ditugu hitzarmen hauei esker etorritako taldeak, nahiz eta talde txikiagoak izan: zenbaki hauek ez daude udako balantzean jasota, talde hauek zuzenean beraien gida turistikoekin etortzen baitira turismo bulegoetatik pasa beharrik izan gabe. Aitzitik, aurten ere, Estatuko touroperatzaile haundien autobus taldeak desagertu egin dira uztailean.

Aipatzekoak:

- Uztailean eta abuztuan igoerak izan ditugu iazkoarekin alderatuz, eta **bitxia izan da uztaileko kasua**: deseskalatze maila desberdinak zirela eta, iaz euskaldun asko zenbatu genituen bezela, aurten euskaldun gutxiago ibili dira; hauek utzitako lekua Estatuko leku desberdinetatik etorritako turistek bete dute, eta datu honek beste ondorio positibo bat ekarri du: beste Erkidegoetako bisitariak jasotzeak eta lolekurako hauen beharrak, igarotako gaualdien gorakada nabarmena ekarri du iazkoarekin konparatuz; ez ditugu inoiz hainbeste gaualdi zenbatu uztaileko hilabete batean.
- Lurralde guztietako **euskaldunak** etorri dira aurten ere egun pasa eta antolaturiko bisita desberdinetan parte hartu dute; egoera hau uztailean zehar gertatu da batez ere. Gerora eta udazkenari begira adierazle hau oso garrantzitsua da guretzat iaz konprobatu ahal izan genuen bezala: alde batetik, gure eskualdean lehen aldiz etorri diren euskaldunak gerora ere etortzeko bidea ikasi dutelako, eta bestalde, etorri diren bisitari hauen bidez, ahoz ahoko informazioa zabalduko delako.

- **Espainiar** Estatuko Erkidego guztietatik etorri zaizkigu bisitariak Ceuta eta Melillakoak izan ezik. Iazko urtearekin alderatuz aldaketa gutxi somatu ditugu eta, aipatu ditugun lehen hiru postuez aparte (Katalunia, Madril eta Valentzia), igoera nabaritu da berriz ere Aragoi, Asturias eta Kantabriatik etorritakoen artean (gertutasuna izan daiteke honen arrazoia); beste aldean, Andaluziatik etorritakoak ere goruntz egin dute nabarmen azken urteetan bezela, eta gauza bera gertatu da Kanariar eta Balear Irletako turistekin.
- **23 herrialde desberdinetako** turistak heldu dira aurtengo udan; atal honetan ere nabarmena izan da frantsesen igoera izugarria, eta inoiz ikusi gabeko portugaldarren zenbakiak, kasu honetan ere gertutasunak eragindakoa edo Europarunzko bidaiari geldialdia egiteko. Turista atzeritarra iazko %4tik aurtengo %7ra pasa da.
- **Alojamenduei** dagokionez, abuztuan %90ko okupazioa izan dute landetxe eta nekazalturismoek (2019an %78), eta hotel eta pentsioen kasuan %92koa izan da batz bestekoa (2019an %90); azken bi alojamendu mota hauetan, iaz ez bezela, okupazioa berdina izan da alojamendu haundi eta txikietan. Abuztuak 9tik aurrera ia ez da ohe librerik geratu Goierri, banakako gelaren bat salbu; kontutan edukita gainera, aurten 58 ohe gehiago izan ditugula Ordizia hotelari esker, oso datu onak direla aitortu beharrean gaude. Abuztuan bakarrik, 20.737 gaualdi izan ditugu Goierri, eta gauak eta gosariak kontutan hartuta bakarrik (hau da, bazkariak, afariak, bisitak eta erosketen gastuak zenbatu gabe), 829.500 € geratu dira Goierri abuztuan; **uztaila eta abuztuko turistek gaualdiak eta gastuak zenbatuta 2.231.000 €tako sarrerak izan ditu Goierri eskualdeak, Goitur-ek 10 urtetarako duen aurrekontuaren adina.**
- Aurten ere, **Goierriko "call center"**ak, hau da, egunero egunsentitik ilunabarrera arte informazio turistikoa ematen duen zerbitzuak (Goitur-eko telefonoa) sekulako arrakasta izan du, turismo bulegoetako ordutegitik kanpo informazioa emateaz gain, agenda eta bisiten berri ere eman dugulako. Era berean, Goierri bidaiatu aurretik jaso ditugun **kontsultak nabarmen igo** dira.
- Udan zehar turismo bulego desberdinek **bisita ugari** antolatu dituzte eta oso ondo funtzionatu dute; dena den, osasun protokoloen arabera, taldeak murriztu egin behar izan dira aurten, eta egoera honek oztopoak ere sortu ditu interpretazio zentro batzutan abuztuan batez ere. Azken puntu honetan beste adierazle garrantzitsu bat aipatu beharrean gaude: aurten, inoiz baino gehiago, Goierri etorri diren turistek **Goierri bere osotasunean ezagutu** nahi izan dute txoko eta errekurso desberdinak bisitatuz museoez aparte; hori dela eta, irikita egon diren jatetxeek oso

ondo lan egin dute eguerditan batez ere, eta komertzioak ere nabaritu du. Eta Goierri lo egin dutenen antzera, Donostian edo kostako beste herrietan ostatu hartu dutenen artean ere, aurrez programatuta zekarten Goierri bisitatzea, gure “call center”ean jaso ditugun deietatik ondorioztatzen den bezala.

IRAILA

- 2an, aurtengo udako turisten mugimenduak aurkeztu zaizkie eskualdeko eta Gipuzkoako medioei prentsaurreko baten bidez.
- 15etik eta urriak 15 arte Goierri promozionatu dugu online formatoan Expressive enpresa kontratatu ondoren; kanpaina digitala jarri dugu martxan hiru estrategia erabiliz: sare sozialak, Youtube eta Programatika; Araba eta Bizkaia lurraldeetako 35 eta 75 urte arteko pertsonengana heldu da Goierriko informazioa formatu desberdinen bidez.
- 18an Ordizian ospatu den “Open de Euskadi”ko BTT saria babestu dugu: proba honetara Euskal Herriko eta inguruko Erkidegoetako parte hartzaileak gerturatu dira.
- 20ean, Aitor Buendia kazetariak zuzenduriko “La ruta slow” programa grabatu dugu Goierri: eskualdeko gastronomiari buruzko saio bat egin dugu pertsonai desberdinekin eta udazkeneko aste bukaera desberdinetan emitituko da Radio Euskadi eta Radio Vitoria irratietan.
- 20tik urriak 3 arte, 15 eguneko Goierriko kanpaina promozional berria jarri dugu martxan lehen aldiz EITB taldeko irrati eta telebistetan.
- 22an Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Ostalaritza Zuzendaria den Goyo Zurrokin bildu gara datorren urteko egitasmoa eta aurrekontuei buruz aritzeko.
- 23an Europako dirulaguntzei buruzko ikastaro bat eskaini da Gestores Europeos enpresaren bitartez; ikastaroa Udaletxei zuzendua izan da.
- 23an baita ere, “Correo de Bizkaia” egunkariko GPS aldizkarian Goierriko erreportaia argitaratu da, eta iraileko bigarren hamabostaldian zehar, irratiak sartu eta elkarrizketak egin ditugu SER kateko “Hoy por hoy Bilbao” saioan, Onda Cero-ko “Más de uno” saioan eta Onda Vasca-ko “Euskadi Hoy Magazine” programan.

- 23an ere, Gipuzkoa Turismoko Hub-ean, Goierri eskualdea aurkeztu dugu Gipuzkoako errezeptibo desberdinen aurrean.
- 24ean Ormaiztegin antolatu den turismoko prentsurrekoan parte hartu dugu herriko memoria turistikoa dala eta.
- 28an Gipuzkoako Turismo Mahaia bildu da eta bertan, urte amaiera arte dauden promozio ekintza desberdinak aztertu ditugu; era berean, Gipuzkoako turismorako egitasmo estrategikoaren ekintzak aztertu ditugu, baita Etorkizuna Eraikiz-eko big data egitasmoa ere.
- 29an, Eusko Jaurlaritzak antolaturiko turismo industrialari buruzko Industriadia deituriko jardunaldietan parte hartu dugu; era berean, Basquetour-eko Zuzendaria eta Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza Sailburuordearekin biltzeko aprobetxatu dugu.
- 29an baita ere TravelRebel, Europako bidai agentzien plataformako hiru partaide etorri dira Goierriko hainbat produktu turistiko ezagutzera; Goierri bisitatzeko arrazoia turismo jasangarriaren inguruan eginiko lana izan da.
- 30ean urriko eta azaroko online kanpaina gastronomikoa kaleratu dugu, webgunearen kontaktuak biltzen jarraitzeko helburuarekin.
- Irailean Frantziako "Le Routard Pays Basque" gida-liburu turistikoaren Goierriko edukiak aldatu ditugu argitalpen berrirako.
- Hilabete honetan ere Gr 283 Gaztaren Ibilbidean oinarrituriko spot bat grabatu dugu promozio desberdinetan erabili ahal izateko.

URRIA

- 1etik 3ra BEC-eko Expovacaciones turismoko azokan parte hartu dugu; 22. aldiz aurkezten ziren gure produktuak Bizkaian eta harrera ezin hobea eduki dugu.
- 4ean Nerea Garmendia aktorezarekin bildu gara Goierriko promozio turistikoa indartzeko asmoz: eskualdeko produktu turistiko desberdinak grabatuko ditu promozio desberdinetarako Campermendia ekimenean oinarrituz.

- 6an Alemaniako Die Welt egunkariko Rudolf Stumberger kazetaria etorri da Goierrira eta eskualdeko hainbat produktu turistiko bisitatu ditugu berarekin; Euskadiri buruzko erreportai bat argitaratuko da egunkari horretan.
- 7an eskualdeko Turismo Mahaia bildu da udako balorazioa egin, udazkeneko promozio turistikoen berri eman eta datorren urteko egitasmoa aurkezteko helburuarekin beste gai batzuen artean.
- 10ean Euskal Mendi Federazioko Orientazio Martxa bat antolatu dugu Zegamako Otzaurten, GOT taldearekin batera.
- 10ean baita ere, Nerea Garmendia aktorearekin promozio kanpaina bat adostu ondoren, Goierriko hainbat produktu turistiko grabatu ditugu.
- 15etik 17ra Seu d'Urgell-eko (Lleida) azokan egon gara: Kataluniatik kanpoko stand bakarra izan gara eta sekulako arrakasta izan dugu beste behin ere, bai jende kopuruaren aldetik, baita prentsaren aldetik ere.
- 24ean, Madrildik etorritako kazetari gastronomikoekin press-trip bat antolatu dugu eskualdeko produktu turistiko gastronomikoak aurkeztu asmoz; ondorengo komunikabide hauetako kazetariak etorri dira: El País eta Vozpópuli egunkariak, RNE Irratia eta "Directo al Paladar", Gourmets (El Corte Inglés), Esquire, Renfe, Gastronomistas, Vanity Fair, National Geographic eta L'Exquisit aldizkariak.
- 25etik 26ra, Alfonso Polvorinos, "El Ecoturista" aldizkari digitaleko kazetaria etorri da Goierrira gure Parke Naturalak eta beste hainbat produktu ekoturistiko bisitatzera.
- 28an Goierriko garapen turistikoa aurkeztu dugu Leitzan, Plazaolako Partzuergo Turistikoak eskatuta, bertan lantzen ari diren egitasmo estrategiko berria dela eta.
- 29an, Zeraingo Aizpittako meatze gunearen inguruko bilera batean parte hartu dugu eskualdeko industria nagusienekin batera.

AZAROA

- 2an Goierriko Helmuga Turistiko Adimendunaren plan pilotua martxan jarri dugu eta lehen bilera ospatu da, egitasmo hau aurrera eramango duen mahai teknikoa eratuz; 11an ospatu da bigarren bilera.
- 1etik 3ra Goierriko informazio turistikoa Londres-eko WTM azoka turistikoan egon da, bai Euskadiko stand-ean, baita bertan presentzia izan duten bidai agentzien bidez ere.
- 4ean Gipuzkoako Foru Aldundiak antolaturiko turismoko jardunaldian parte hartu dugu.
- 5etik 7ra Vic-eko Fira de la Muntanya azokan parte hartu dugu lehen aldiz eta sekulako arrakasta izan dugu jendearen interesa aldetik.
- 9an, ATRAE, Euskadiko agentzia eta errezeptiboen elkarteko Zuzendaria eta kide batzuekin bildu gara, digitalizazioa eta komertzializazioa batzen dituen egitasmo berri bat lantzeko helburuarekin Gastronomiako Kluster-arekin batera.
- 12tik 14ra Eusko Travel Bloggers elkarteko blogger desberdinak etorri dira Goierriko produktu turistiko desberdinak ezagutzera eta promozionatzera.
- 13tik 14ra Frantziako Le Routard gida-liburuko François Chauvin idazlea etorri da, aurreko liburuan sartu gabe zeuden Goierriko produktu turistikoak bisitatzera eta hauei buruzko informazioa jasotzera.
- 17an Basquetour-ek antolaturiko "Road Talks" turismoko jardunaldian parte hartu dugu.
- 23an Gipuzkoako Turismo Mahaia bildu da eta bertan, datorren urterako dauden promozio ekintza desberdinak aztertu ditugu; era berean, Gipuzkoako turismorako egitasmo estrategikoaren ekintzak aztertu ditugu.
- 24ean, Goierriko gastronomian eta naturan oinarrituriko elkarrizketa desberdinak grabatu ditugu RNE irratiarekin, ondoren, programa desberdinetan emitituko direnak.
- 30ean, Euskadiko turismo-enpresen eraldaketa digitalaren erronkei buruzko webinar batean izan gara Saretour-en eskutik.

- 30etik abenduak 2ra arte Goierriko informazio turistikoa Bartzelonako IBTM azoka turistikoan egon da MICE merkatuari zuzenduta.
- Hilabete guztian zehar Gr 283 ibilbidearen foileto berria diseinatu eta editatu dugu; foileto honek Eusko Jaurlaritzak egiten dituen natura produktuen foiletoen diseinu bera izango du.
- Hilabetean zehar Gipuzkoako Hub-ak antolaturiko formazio desberdinetan parte hartu dugu.
- Azaroan zehar ere Udaletxe desberdinekin bildu gara esku artean dituzten egitasmo turistiko desberdinak aztertu asmoz.

ABENDUA

- 3an Ekoturismoko Mahaia bildu da, eta bertan, aurtengo ekintzen memoria, datorren urteko egitasmoa eta urtarrilean ospatuko den Ekoturismoko Foroaren egitaraua aurkeztu dira.
- 14ean, Estatuko Turismo Idazkaritzak hala onartuta, Estatuko Helmuga Turistiko Adimendunen Sareko partaide izendatu gaituzte Helmuga Adimenduna izateko prozesuan lanean gaudelako; Estatu guztian 347 kide gara denera: 226 herri edo lurralde, 50 erakunde eta 71 enpresa desberdinek osatzen dute sarea.
- 16an Euskadi Gastronomika egitasmoari buruzko bilera batean parte hartu dugu formazio berri bat dela eta.
- 16an ere, Eusko Jaurlaritzak antolatu duen Turismoko Egunean parte hartu dugu Bilbon.
- 22an Nerea Garmendia aktorezarekin bildu gara urtarrileko txotx irekiera prestatu eta FITUR-en egingo dugun aurkezpena zehazteko baita ere.
- Abendua bukaeran eskualdeko sagardotegiekin harremanetan jarri gara urtarrileko txotx irekieraren inguruan jarduteko.
- Abenduan zehar ere, Basquetour, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako agintari politikoekin elkartu gara, Goitur-ek datorren urterako duen egitasmoa aurkeztu eta beraien subentzioen berri eduki ahal izateko, elkarlanean egingo ditugun promozioak adostearekin batera.